

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Gure produktuak behar bezala funtziona dezan, honako hauek dira kontuan izan eta zaindu behar ditugun aspektu garrantzitsuenak:

Alde batetik, oso garrantzitsua izango da aplikazioa eta bere zerbitzuak eguneratuta eramatea (erosteko zerbitzua).

Aplikazioen bitartez, herrian bertan, edozer gauzarengatik etxetik irten ezin dutenentzako; oso lagungarria izango litzateke aplikazioaren bidez erostea, etxera eskaera bidal daitekeelako.

Argi dago, gure enpresak funtsezkoak diren hainbat jarduera dituela adibidez ekoizpena, plataforma edo sareko jarduerak eta arazoak konpontzea. Ekoizpenaren aldetik, gure enpresak aplikazioaren sortzeari emango dio lehentasuna, gure helburua, Ordiziako merkatarikari elkartearekin batera, herriko merkataritza sustatzea baita.

Bestalde, hasieran, guk, enpresa berak, etxeetara emango ditugu produktuak, eta bidalketa gastuak egongo dira, baina, bezero bakoitzaren ingurunera egokituz. Hau da, beste herri bateko bezeroei ez diegu berdina kobratuko bidalketa gastuak.

Eta azkenik, gure aplikazioak izan ditzaken arazoak konpontzeko, gu ofizian egongo gara lanean, eta ordiziako merkatarikari elkartearekin arituko gara elkarlanean, bezeroei sortzen zaizkien zalantza edota arazoak konpondu ahal izateko. Horrez gain, aplikazioaren funtzionamenduak arazoak emanez gero, teknikariak izango ditugu honako honi aurre egiteko.